



# FESTA BEREZIA ETZI, TALOAREN EGUNEAN

Leitzako plazan jatekoa eta edatekoa ez dira faltako; 10:00etatik aurrera ekitaldi ugari izango dira » 7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-09-05**


VIURTEA 1500.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



## Olaberriak laugarren egin du Europako Txapelketan

**IKAZTEGIETA** Polonian aritu da lehiatzen; Tolosa CFko Ana Usabiagak ere marka ona egin du » 5



Goian, TO.PIC egitasmoa bultzau duten arduradunak, atzo. Behean, Zentroak izango duen itxura goitik begiratuta. R.C.

## TOLOSA MUNDU OSOKO TXOTXONGILOEN TOPALEKU BILAKATURIK

**TOLOSA** TO.PIC Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroaren lanen berri eman zuten atzo egitasmoa bultzatu duten arduradunak » 3



Alkizan gaztetxoak lokotx biltzen aritu ziren. I.GARCIA

## Atzo Alkizan hasi eta herri gehiagotan ekingo diete jaiei

**TOLOSALDEA** Elduain, Lizartza, Zizurkil eta Bedaio eta Izaskun auzoetan gaur hasiko dira » 4

**LIZARRIBAR  
OINETAKOAK**

OSTEGUNA, OSTIRALA ETA LARUNBATA

**BEHERAPENAK!** 10 €, 20 € eta 30 €

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue aukeran: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atala erabiliz; e-mail bidez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidera bidaliz edota 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta.

**Hizkuntza Eskolaren inguruan**

Berri ona izan genuen orain gutxi. Tolosako Udaletxeko Hezkuntza departamentuak, Onintza Lasa buru zuela, iaz proposatu omen zuen Hizkuntza Eskola Tolosara ekartzea (Donostia, Irun eta Eibarren daude orain). Azkenean lortu du eta Jaurilaritzak emandako laguntzari esker Paper Eskolan ingeleseko eta frantseseko lehen eta bigarren mailak eskainiko dira urriaren 8tik aurrera. Berri ona, honaino, hortaz.

Bigarren zatia dator orain. Berria irakurrita udaletxera jo nuen lehenengoan, matrikula egiteko asmoz. Bertan, hasteko, ez zituzten inskripzio orriak (40 bat jaso zituzten eta denak amaituta zituztenez Groseko Hizkuntza Eskolara jotzeko esan ziaten). Ondo, "besterik ezean Donostiara gerturatuko naiz", pentsatu nuen. Arazoa haratago doa, hala ere: oso plaza gutxi daude eta horiekin Goierri eta Tolosaldeako eskaera kubritu nahi dute!, eta beraz, pertsona batzuek izango dute lehenetsua. Zeintzuk? irakasleek, batez ere. Ondoren, ikasleek, eta zehazki iaz Donostiako Hizkuntza Eskolan izena emanda zudenak. Ondo. Noski irakasle zein ikasleek hizkuntzak behar dituztela, baina eta beste guztiok? enpresa batean muntaiain lan egiten duen batek ez al du ingelesa behar AEBtara lanera joateko? ez al du etxeko andre batek ingelesa edo frantsesa merke ikasteko eskubiderik? Izan ere, badakigu, Hizkuntza Eskolaren salneurria denok ordaindu dezakegu, gutxi gora behera, baina behar bada ez akademia pribatu bateko kuota. Beraz, nire ustez, Hizkuntza Eskola Tolosara ekarri nahi izan dutenak prezipitatu egin dira. Plaza ia gabe, lau irakasle bakarrik,

informazioa jasotzeko toki egokirik gabe (udaleko Euskara departamentura jo behar izan dugu) .... behar bada, datorren urtean bai esan ahal izango dugula arro badugula Hizkuntz Eskola Tolosan, baina oraingoz hutsune gehiegi atzematen dira proiektuan nire ustez.

**Amia (Tolosa).**

**Sexu erasoekin nazkatuta**

Zer pasatzen da uda honetan izan diren sexu erasoekin, erailetzekin eta halakoekin? Beroarengatik eta elkarrekin denbora gehiago pasatzen delako gertatzen dira? ez dago posible! Duela urte batzuk Euskal Herrian gertatzen ziren kasuez ez ginen enteratu ere egiten eta uste genuen hemendik kanpo bakarrik gertatzen zirela halako erasoak. Baina erratuta ginen. Baliteke, duela urte batzuk ematen ziren kasu kopuru berdinak eman izatea gaur egun Euskal Herrian, baina gauza da, gaur, gehiagoz enteratzen garela.

Zer bait egin beharra dago: nolatan kaletik joan eta bortxatzeko asmoarekin aterata? edo baten batek tifi bat ukitu nahi duelako kaletik joan eta neska bat eraso hori lortzeko. Edo lehenengo gertatu zitzaizana: parranda batean bitipoi purdiari begira aurpegi nazkagarriekin, eta nire ondotik pasatzean ipurmasaila indarrekin hartu. Zein eskubiderek? Hori jasan behar al dugu? Bromatzat hartu behar da beti halako jarrera bat?

Tristeia iruditzen zait, eta bai: denoi gaizki iruditzen zaizkigu halakoak, baina ez dugu ezer egiten horren aurka, nondik hasi ere ez dakigulako. Gizarte hau gaixo dago, zornea dario.

**Eider (Villabona).**

**Alpino Uzturre Atlaseko mendia altuenetan**

Alpino Uzturre mendia elkarteko bazkide batzuk Marokon izan dira abuztuko lehen hamabostaldian eta Atlas mendikateko mendia altuenetan igo dituzte elkartean 50. urteurre-

neko ekitaldien barruan. Espedizioa elkarteko 20 bazkidek osatu dute gidari batzuen laguntzarekin eta denek lortu dute M'Goum (4.068 metro) hilaren 3an eta Toubkal (4.167 metro) hilaren 11n igoztea. Gainera, Ouzoudeko ur jauziak, Dades eta Todra arroilak, Merzougako

dunak, Ouarzazate eta Marrakech ezagutzeko aukera ere izan dute. Irailetik urte amaiera bitarte 50. urteurreneko ekitaldi gehiagoburuko dituzte elkarrekin. Argazkian, Alpinoko mendizaleak eta gidariak Toubkal mendiko gailurrean.

**Alpino Uzturre (Tolosa).**

**Tolosa Dakarren ere bai?**

Abuztuan Senegalen izan gara bi tolosar. Dakarrera iritsi eta ondoren hegoaldera jo genuen Casamanceko paraje politak ezagutzera. Han egun batzuk igaro ostean, berriro ere Dakarrera bueltatu ginen, handik iparraldera abiatzeko asmoz, hurrengo jomuga Saint Louis baitzen. Tolosako lagun baten familiaren etxean igaro genuen aste bate, oso ongi. Eta hiru asteren bueltan, Tolosara bueltatzeko hegazkina hartzeko eguna iritsi aurretik, Dakarrera itzuli ginen, han azken eguna egiteko. A zer sorpresa hartu genuen hiritik paseatzen genbiltzala *Tolosa Caliente* izeneko taberna ikusi genuen. Jabeak Tolosakoa be-



har zuela izan pentsatu genuen, izan ere, zezen baten irudia zuen kanpoaldean, eta *bar tapas* ere jarritzen zuten. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe sartu egin ginen zer bait hartzer, eta bide batez jabearekin hitz egitera. Barruan edari eta jakien prezioak eta gaztelaniaz eta fran-

tsesez jartzen zituen. Zer bezeri itxurako taberna txukun haren jabeari galdetu genion nondik zetorren izena. Interesa genuela esan genion tolosarrak ginelako, eta berak ere Tolosakoa zela esan zigun, baina Frantziako Tolosakoa.

**Iban (Tolosa)**

**H Hilberria****PAKO UNANUE JAUREGI**

Ze erraza izan dan zu maitatzea eta ze zaila izango dan zu ahaztea. Beti izango zaitugu gogoan

**Kandido, Joxepe eta Joxume eta ilobak**

ARROA-GOIA  
2008eko  
irailaren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

# 2009ko udazkenean irekiko dute TO.PIC zentroa

**Kultura** » Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentro berria Europako era honetako zentro integral bakarra izango da.

REBEKA CALVO

Euskal Herri plazako garai bateko kartzela eta epaitegia mundu oso-ko txotxongiloen topaleku izango da datorren urteko udazkenetik aurrera.

Horrela argitu zuten atzo, Tolosara gerturatutako TO.PIC egitasmoa bultzatu duten arduradunek; Eusko Jaurlaritzako Miren Azkarate Euskara eta Kultura sailburua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura arduradun den Aritz Sodupe, espainiar Gobernuako Kultura Ministerioako Ignacio Guzman, Kuztako Carlos Ruiz, Tolosako Elkinbide Etxeko eta Titirijaiko zuzendia, Miguel Arretxe, eta Tolosako alkate Jokin Bildarratz.

Arretxe izan zen hitza hartu zuen lehena, aurretik, nola ez, Donostiako Txotxongilo taldeko Enkarni Genuaren Txirene panpinak aurkezpena eginda. Titirijaieko zuzendariak argitu zuenez, TO.PIC Europako txotxongiloen zentro integral bakarra izango da, bi aurrekari dituelarik munduan; AEBetan, bata, eta Taiwanen, bestea.

Horiek horrela, TO.PICek lau ardatz nagusi izango ditu: munduko txotxongilo ondarea kontserbatzea; arte honen sustapena eta hedapena; dokumentazioa eta ikerketa, unibertsitate eta bestelako entitateekin egingo diren akordioei esker; eta trebakuntza eta birziklatze profesionala. Izan ere, Arretxek txotxongiloen mundua gehienbat autodidakta dela gogoratu zuen eta horregatik zentroaren helburuetako bat ikastaro edo lantegi magistral desberdinak ematea izango da, horien artean

Internet bidez egin ahal izango diren urrutiko tailerrak ere izango direlarik.

Helburu hauek bete ahal izateko Euskal Herria plazako eraikinak erakusketa finko bat izango du eta baita aldi baterako erakusketa monografiko espezializatuak ere. Era berean, dokumentazio, agiritegi eta mediateka zentroa izango du, 250 ikusleentzako espazio eszeniko modernoak, proiektzio eta entsegu gelak, ekintza eszeniko bateragarriak egiteko lekuak, mintegiak eta ikastaroak egiteko gelak eta artista edota ikerlarietarako egoitza txiki bat.

Hau guztia lau solairutan banatutako 3.600 metro koadrotan jasoko dute.

## Etorkizuneko ikusleak

Titirijaieko zuzendariak publiko guztientzako zentroa izango dela ere esan zuen. «Umeei, hala ere, garrantzia berezia emango diegu. Gure ustez umeak txotxongiloen mundura gerturatzea ezinbestekoa da, urte batzuk barru beraiek izango baitira arte honen ikusleria», azaldu zuen.

Jokin Bildarratzek, bere aldetik, egitasmoa eredugarritzat jo zuen. «Egun dagoen giro politiko zail honetan eredugarria da hemen dau den logotipo guztiak batera ikustea», esan zuen. Alkateak egitasmoa 1985. urtean abiarazi zela gogoratu zuen. «proiektuari fruitua emateko garaia iritsi zaio», gaineratu zuen. «Priba-publi» bezala izenpetu zuena ere goraiatu zuen Bildarratzek: «Arlo pribatu zein publikoa uzartu behar ditugu, bai inbertsioan, gaur aurkezten dugu-



Errian kartzelaren teilatua ikusi daiteke eta atzean ikusi daitezkeen leihoetan epaitegia zegoen. TO.PIC

na, eta baita kudeaketan ere». «Herri-proiektua» dela ere esan zuen Tolosako alkateak.

TO.PICa Titirijairen ondorio dela esan daiteke. Iazkoa 25. edizioa izan zen eta horrenbeste urte eta gero Tolosaldean «erabat egonkortuta» dagoen jaialdia dela gogoratu zuten. «Jaialdia errealtate sendoa da egun eta halaxe erakusten dute parte-hartze parametro guztiak, baita esku hartzen duten konpainiek, errepresentazio kopuruak eta ikusleek ere», esan zuen Arretxek. Datuak ere eman zituen: urte hauetan Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak 40 herrialdeetako 421 konpainia izan ditu, 2.015 emanaldietan banatutako 487 ikuskizun eskaini ditu eta guztira ia 400.000 ikusleek hartu dute parte jaialdian.



Itxura hau izango du zentroak zaharberritzea bukatu eta gero. TO.PIC



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**berria** bekak  
2008

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietazan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskarak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskara egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragai





Lokotx biltzen eta patata goilararekin eramaten aritu ziren, besteak beste, haurrak jokoetan. Buruhandiak ere ibili ziren bazterrak aztoratzen. I. GARCIA

## Iraileko lehen festak hasi dira

**Alkiza** » Haurrentzako jolasak eman diote hasiera herriko festei; gaur eskualdeko beste hainbat herritan hasiko dira ere.

IMANOL GARCIA

Haur ugari bildu ziren atzo arratsaldean, asko anoetarrak, Alkizako festen lehen egunean. Beraien-  
tzako haur jolasak antolatu zituzten eta urtero bezala arrakasta handia izan zuten. Buruhandiak ere ibili ziren plazatik zehar. Eguraldiak barkatu zuen eta eguerdiko eurriak ez zuen izan segidariak arratsaldean, eta beraz, plazan egin ahal izan zituzten jokoak.

Eskualdeko hainbat herritan ere gaur hasiko dira jaiak: Bedaion, Elduainen, Lizartzan, Zizurkilan eta Tolosako Izaskun auzoan.

### » LIZARTZAKO JAIETAKO BI EGITARAUAK

#### UDALAK ANTOLATUTAKOAK

##### Irailak 6, bihar

■ 12:00-14:00 eta 16:30-18:30.

Haur parkea.

##### Irailak 7, etzi

■ 18:00. Zirika Zirkus taldearen antzeziana.

##### Irailak 8, astelehena

■ 12:30. Herri kirolak.

#### HERRITARREK ANTOLATUTAKOAK

##### Irailak 5, gaur

■ 18:30. Kros mistoa.

■ 20:30. Kalejira Karobitxulo taldea eta buruhaundiez alaiturik.

■ 21:30. Herri afaria plazan.

■ 00:00. Txupinazoa eta danborrada. Ondoren, Oxabi taldearen kontzertuak.

##### Irailak 6, bihar

■ 10:00. Goiz deia Lizardi txistulari taldearekin.

■ 12:00. Patata tortila lehiaketa.

■ 13:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia.

■ 14:00. Herri bazkaria trikitilariak alaiturik.

■ 16:00. Haurrentzat jolasak.

■ 18:00. Segua apustua.

■ 19:00. Sagardo dastaketa.

■ 23:30. Su artifizialak.

■ 00:00. Presoen aldeko kalejira.

Ondoren, Jake Mate eta Joxpa taldeen kontzertuak.

##### Irailak 7, etzi

■ 10:00. Goiz deia egingo dute Li-

zartzako Gaiteroek kaleetan zehar.

■ 12:00. Poteoa Lizartzako gaitero eta trikitilariekin.

■ 12:30. Il. Toka Txapelketa.

■ 18:00. Dantza soka.

■ 18:30. Iparraldeko Jokoak Sarasolaren eskutik.

##### Irailak 8, astelehena

■ 10:00. Goiz deia Karobitxulo trikiti taldearekin.

■ 11:45. Hamaiketako Txirrita Elkartean.

■ 12:00. Pilota partiduak.

■ 14:00. Helduen bazkaria Ostautun.

■ 16:00. Herriko trikitilarien emanaldia.

■ 18:00. Ogiyik ekarri etzuz semia antzeziana Txireneren eskutik.

Ondoren, Gabezin taldea.

## Laburrak

### Monitoreak behar dira kiroldegian aritzeko

**ANOETA** • Anoetako Udalak kiroldegian monitore lanetan aritzeko langileen lan poltsa osatzeko bandoa kaleratu du. 3. adineko gimnastika, aerobika, multifitness, dantza anitzak, defentsa pertsonala, pilates, yoga, cycling, gimnastika erritmikoa, judo, jarduera anitzak eta tenisa bezalako ikastaroak emateko gai diren monitoreak behar dira. Betebeharreko baldintzak izango dira adinez nagusi izatea, emango den jardueraren monitore titulua izatea, ikastaroak euskaraz emateko gai izatea eta ordenagailuaren erabilera oinarritzko ezagutzak edukitzea. Interesatuak curriculum eta nortasun agiriaren fotokopia utzi beharko dituzte Anoetako udal bulegoetan astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara bitartean, hilaren 8tik aurrera.

### Astelehenean, Jesusen Bihotzako ikasturtea abian

**VILLABONA** • Jesusen Bihotzako ikasturteko DBHko ikasleek aurkezpen eguna astelehenean izango dute, 12:00etan. HHko eta LHko ikasleentzat, berriz, ikasturteko lehen eguna hilaren 10ean, asteazkenean, izango da. Bestalde, aurrez eskaturiko ikasliburuak banaketa HH eta LH1-LH5 ko ikasleentzat gaur egingo da Txermingo jangela 10:00etatik 13:30era eta LH6 eta DBHko ikasleek hilaren 8an Zentroan jaso beharko dituzte euren liburak 10:00etatik 13:30era.

### Udal tasak ordaintzeko diru laguntzak aukeran

**VILLABONA** • Ur horniduraren tasa eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko diru laguntzak eskatzeko aukera ematen du Villabonako Udalak. Ondorengo baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek: hileroko diru sarrerak, kontzeptu guztiak barne, lanbide arteko gutxieneko soldataren berdina edo urriagoak dituzten eta ohiko etxebizitzaz gain bestelako ondasun higiezinak jabeak ez diren familia unitate guztiak. Eskaraz aurkezteko epea hilaren 12an amaituko da, 14:00etan.

  
Jatetxea  
Edaritegia  
**PASUS**  
Tel.: 943 249 775  
Ernio bidea, 7 • Zizurkil  
pasus@pasusrestaurante.com  
www.pasusrestaurante.com

  
ELDUAIN  
ELDUAINGO UDALAK

**HERRIKO JAIETARA GONBIDATZEN ZAITUZTE EKITALDI UGARI, MUSIKA MUNDIALA AFARI ZEIN BAZKARI GOXO GOXOAK**

  
KONTZEJU TABERNAK

**Tolosako Iurreamendi Egoitzak zaintzaile bat kontratatu nahi du, aldi baterako, errelebo kontratuaren bidez.**

Deialdi honen oinarriak eta eskaera orri normalizatuak Iurreamendi Egoitzako bulegoetan daude (Tolosako Iruña etorbideko 6an) interesdunen eskueran. Eskaerak aurkezteko epea 2008ko irailaren 15ean bukatuko da.

Tolosan, 2008ko irailaren 2an Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

# Olaberriak laugarren postua errepikatu du Europakoan

**Txirrindularitza** » Polonian ari dira jokatzeko Europako Txapelketa. Ana Usabiaga ordiziarra junior mailan han bertan ere ari da lehiatzen.

## NEREA URBIZU

Jakina da denegatik Leire Olaberriak Pekingo Olinpiar Jokoetan brontzea lortu zuela pistako txirrindularitza. Aste honetan zehar, igandean hasita Europako Txapelketan aritu da Polonian eta herenegun arratsaldeko probetan, podiuma egitea espero bazen ere, laugarren egin zuen.

Scrath eta kanporaketa probetan «oso ondo» aritu zen, hirugarren eginez. Arratsaldean, puntuazioan 9. egin zuen. Proba honetan erori egin zen, eta minik hartu ez bazuen ere, arrastaka eraman behar izan zuen proba osoan zehar, «hasierako motibazio hori gabe». Jazarpenean 4. postua lortu zuen. Lehenengo Tchalik errusiarrak izan zen. Beraz, ia zoko postu berdina eskuratu du aurten ere ikaztegiak.

CESPA-Euskadi taldeko arduradunek esan bezala, «garrantzitsua da Olaberriak, proba eta txapelketa garrantzitsuetan goiko postu horietan egotea lortu duela eta ohitu dela da».

## Ana Usabiaga ere Polonian

Datorren igandera arte izango da Polonian Leire Olaberria. Berarekin batera juniorrak eta 23 urtez azpikoak ari dira: aipamen berezia merezi du Ana Usabiaga txirrindulariak, izan ere, Tolosa CF taldeko txirrindulari gaztea ere han ari da junior mailan, Polonian Eustrak



Leire Olaberria ikaztegiaren egin berri dioten omenaldian. HITZA

taldearekin. Ana Usabiaga ordiziarra da. Hegoafrikako mundialean emaitza oso onak lortu zituen joan den uztailan zehar. Eustrak taldeko arduradunek «asko espero» dute gazte honengandik. Guztira hiru probatan ariko da: jazarpene-

troko Euskadiko plusmarka jaisitea. Orain arte Arantzazu Azpiroz berastegiarrak egin du hobekien proba hau.

## Irene Usabiagak brontzea

Bestalde, Irene Usabiaga, Ana Usabiagaren ahizpa, eta Tolosa CFko txirrindularia baita ere, brontzezko domina lortu du Espainiako errepideko txapelketa, kadete mailan.

Atzo Toledoko probaren amaiera oso estua izan zen, izan ere, bigarren eta hirugarren postua helmugako argazkiaren bitartez erabaki zen. Usabiagak Euskadiko selekzioarekin hartu zuen parte, eta bera taldeko buru ez izan arren, beste txirrindulari batzuekin iritsi zen helmugara eta esprintean sartu zen.

# Gaur eta bihar, Joxean Tolosa Txapelketako final-laurdenak

**Amezketak** » Udan zehar aritu dira jokatzeko Amezketako frontoian eta orain finalerdietarako txartelak jokatuko dituzte.

## ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, udan zehar Amezketako pilotalekuan Joxean Tolosa Pilota Txapelketan aritu diren pilotari onenak ariko dira, izan ere, final-laurdenak jokatuko dituzte. Gaur eta bihar ariko dira, 22:00etan.

Amezketako XIX. Joxean Tolosa Txapelketan hauek izan dira asteburu honetan jokatzerira iritsi direnak: Aizpuru, Santxo, Apeztekoa, Arzelus, Larrañaga, Onsalo, Bereziartu, Gallurralde, Arrieta, Mendinueta, Gorrotxategi eta Otxandorena. Eskualdeetako pilotariak asteburu honetan badira, beraz.

## Finalerdietarako txartelak «emozioa eta pilota ona»

Xalton Zabala Zazpi-Iturri pilota eskolako arduradunak azken final-laurdenak gogoratu ditu: «Final-laurdenetako lehenengo bi jaialdiek gauza positibo asko utzi dizkigute: giro oso polita sortu da frontoian, bi egunetan 100 lagunetik gora bilduz eta zerbait ona pasako zen itxaropenez». Bestetik, «final-laurdenetako kanporaketa galdu duten pilotariak pena ematen zuten kanporatuak izateagatik

eta hori seinale ona da; parekotasun handia egon dela».

Jaka infantilak, 11-3 galtzen egon arren 12-18 irabazi zuen kadeteetako finalurreko txartela lortuz.

## Gogoratzeko partidak

Lehenengo urteko jubenetako Epelde txapelkunak «komerikak izan zituen partida irabazteko Zubiri handi baten kontra», 11-14 galtzen joan baitzen.

Nagusien mailan txapelketako partida jokatu zuten aurreko asteburuan. «Andreu handi bat ikusi genuen Espainiako txapelkun den Armendarizaren kontra 16-16 jarri eta zorte pixka baten faltan gelditu zelako. Ederra izan zen partidakubatu eta gero jendeak zutik jarri eta eman zien txalo zaparrada. Asko ari gara disfrutatzen eta oraindik geratzen zaiguna».

## » FINAL-LAURDENAK

### Gaur 22:00etan

- **Kadeteak.** Aizpuru eta Santxo.
- **Gazteak.** Apeztekoa eta Arzelus.
- **Nagusiak.** Larrañaga eta Onsalo.

### Bihar 22:00etan

- **Kadeteak.** Bereziartu eta Gallurralde.
- **Gazteak.** Arrieta eta Mendinueta.
- **Nagusiak.** Gorrotxategi eta Otxandorena.

# Datorren astean batzordeak

**Amezketak** » Baliointzeko gelan astelenean bilduko dira hirigintza hitz egiteko eta asteartean, berriz, kultura eta ingurumenaz.

## ERREDAKZIOA

Datorren astelenean, hilaren 8an Amezketan hirigintza-obretarako batzordearen bilera izango da 20:30ean, baliointzeko gelan. Asteartean, berriz, kultura, gizarte ongizate eta ingurumen batzordea bilduko da, bertan proposatuko dituzten gaiak jorratzeko asmo eta herritarrei ezagutzera emateko asmoz. Bilerak beti bezala irekiak dira eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Astelenean 2009. ekitaldirako Udal Aurrekontuak eta Tansen (Ordenantza Fiskalak) informazio bilketa egingo dute. Azken bileretan bezala Larrait Bideko urbanizaketari ere helduko diote, eta arau berriztatzaileen aldaketa puntualak ere jorratuko dituzte.

Amezketako saneamendua eta Ugarteko bidegorriari buruzko informazioa ere emango dute lehen aldiz. Beti bezala, hirigintza kontsultak eta informazioa emateko ere balioko du bilera honek.

## Ikastaroak aukeratzeko bilera

Kultura, gizarte ongizate eta ingurumen batzordea, esan bezala, asteartean bilduko da beti bezala 20:30ean eta bilera honetan abuztuko Bartolome Deunaren festeta-

ko balantzea egingo dute eta aldi berean urtea bukatu baino lehenago antolatzen duten Kultur Asteari helduko diote.

Ikasturte berria hastera doa eta eskaini nahi edo ahal dituzten ikastaroei buruz ariko dira. Ideiak eta proposamenak nahiko dituzte horretarako. Euskara Landu irakurketa taldeaz hitz egingo dute, eta honi itxura ematen jarraituko dute.

Hirugarren adinekoentzako ibilaldiak antolatuko dituzte urtean zehar baina hitzaldi eta ibilaldi hauek zein izango diren zehazteko horretaz ariko dira ere bileran zehar. Bukatzeko, haur eskolako obrari buruzko informazioa emango dute (handitze lanak, besteak beste).

Koldo Mitxelena Kulturunea  
Lizentziatuta 1994 • 20006 DOINOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETA

TRY AGAIN

**TRY AGAIN**  
2008ko ekainak 26 - irailak 27

**ERAKUSTARETOAN**

Gipuzkoako Foru Batzarra  
Departamentu Sozial eta Kulturalak  
Kulturaren Erakunde Erakundeak

ORDUTEGIA  
asteartetik larunbatzera  
18:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelenean, igande eta jaierarenetan itzita



## Materiala aukeratuta biharko finalerako

**ELDUAIN** ■ Patxi Zeberio elduindarrak eta Migel Mari Urruti Saldiasako atzo aukeratu zuten materiala bihar Galarretan jokatu duten Casino Kursaal erremonte Txapelketako finalerako (16:45, ETB1). Urrutiak bote biziko lau pilota aukeratu zituen bere sakea baliatu eta

errebotea bilatzeko; Zeberio, berriz, lehorragoak aukeratu zituen, bere airezko eskubikadak baliatzeko. Elduingoa «gustura» geratu zen materialarekin, eta «gogotsu» dagoela finalaren aurrean esan zuen. Biharkoa irabaziz gero, hirugarren txapela jarraian litzateke. JOSEBA ZABALZA

## Laburrak

### 14 urtetik gorako neska futbolarekin aritzeko, gaur

**TOLOSA** ■ Tolosa Cfk deialdia luza-tu du futbolarekin aritu nahi duten neskekin. Deialdia 14 urtetik gorakoentzat da. Interesa dutenek Tolosako Usabal kiroldegian azaldu behar dute gaur bertan, 19:00etan eta entrenatzeko arropak egokiarekin.

### Eduardo Moco-roa Musika Eskolako lehen klaseak

**TOLOSA** ■ Tolosako Eduardo Moco-roa Udala Musika Eskolako ikasturte berria hastear da. Eskolak berak ezagutzera eman duenez, datoren astelehenean emango dituzte lehen klaseak. Bestalde, oraindik ere plaza libreak badira musika eskolan eta izena emateko aukera dago.

### 'Eutsi!' filma ikusteko aukera dago bihar

**OREXA** ■ Orexako Kultur Batzordearen eta Uli Mankomunitatearen eskutik *Eutsi!* euskarazko filma ikusteko aukera izango da bihar. Udaletxeko ganbaran izango da eta 22:00etan hasiko da: sarrera doan da.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbult.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldeko bus:** 943 650621

**Leitzarano autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

## Danena-Olaederrako pultsulariek herriko jaietan dute hurrengo proba

**Zizurkil** ■ XV. Elbarrenako Trofeoa izango da jokoan bihar; Basauriko taldekako trofeoan oso emaitza onak lortu zituzten.

#### ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra Halterofilia taldeak hainbat probatan parte hartzen jarraitzen du. Hurrengoa, herrian bertan izango da, jaietan, XV. Elbarrenako Trofeoa egingo baita. Bihar izango da, 17:00etan, plazan. Trofeo honetan Galdakao, Basauri, Bilbo, Irun eta Danena taldeko pultsulariek parte hartuko dute. Hain justu, Zizurkilgo taldeak nazioarteko txapelketan parte hartu duten Danenako pultsulariei plaka-oroigarria emango die.



Iker Hernandez Danena-Olaederrako pultsularia. HITZA

Beste aldetik, datorren asteko larunbatean, hilak 13, Bizkaian Basauriko Trofeoa egingo da eta bertan Katalunya, Gaztela-Leon, Bizkaia eta Gipuzkoako pultsulariek

parte hartuko dute. Danena taldekoak diren Teddy Martinez eta Ekaitz Kortajarena pultsulariak Gipuzkoako taldean arituko dira.

Bestalde, gogoratu behar da uz-

tailaren Basauriko Urbi elkarteak 15. urtemuga ospatzeko, Basauriko Trofeoa antolatu zela. Bertan Danena-Olaederra Halterofilia taldeak parte hartu zuen, oso emaitza onak lortuz. Danenakoek taldeko sailkapen orokorrean lehen postua eskuratu zuten, Iker Hernandez, Teddy Martinez eta Ekaitz Kortajarena pultsularien parte hartzearekin.

Banakakko sailkapen orokorrean lehenengoa izan zen Ekaitz Kortajarena (314,99 puntu), bigarrena Teddy Martinez (303,26 puntu) eta laugarrena Iker Hernandez (263,85 puntu). 14 pultsularik parte hartu zuten; talde bakoitzako hiruna pultsularik. Aipatu behar da Kortajarenak eta Hernandezek egindako lana, urteko markarik onenak lortu baitziztuzten.

## Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Irakaslea.** Lazkaoko Ingeleseko Akademiarako irakaslea behar da. Bidali Curriculum Vitae helbide honetara: hizkuntzaeskola@gmail.com.

#### LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsalderetan bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. Interesatu den deizetazela telefono zenbaki honetara: 630 984300.

**@ Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak, iradokizunak, kezak... sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako Zurea da hitza izeneko atalera jo behar duzu, eta bertan berria idatzi zure datuekin batera. Argazkia sartzeko aukera ere baduzu. Beraz, modu oso errazean zabal ditzakezu zure berriak:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Zenbakia

# 1.500

■ **Alea.** Argitaratu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. 6. urtea du aurten eskualdeko egunkariak.

## Indarkeri sexistaren aurkako elkarretaratzea

**Tolosa - Leitza** » Bilgune Feministak deituta, gaur 20:00etan egingo dute, Tolosako Triangulona eta Leitzako Lopeneko iturrian.

### A. IMAZ

Leitzako eta Tolosaldeko Bilgune Feministek Carlota Ortuzarren erailketasalatzekogaur 20:00etan egingo dituzte mobilizazioetan parte hartzea deitu dituen herritarrek. Tolosako elkarretaratzea Triangulon izango da, 20:00etan eta Leitzako Lopeneko iturrian ordu berean.

Bilgune Feministak azaldu duenez, «Carlota Euskal Herrian indarkeria sexistaren eraginez hil-

dako laugarren emakumea da». Indarkeria mota honekin amaitzea «denon» ardura dela gogorazi dute. «Erailketa hau salatu eta emakumeon kontrako indarkeriarekin amaitzea denon ardura da. Beraz, adi zuen herrietako mobilizazioei eta parte hartu!».

Elkarretaratzearen goiburua *Emakumeon aurkako indarkeriarekin amaitu! Carlota gogoan!* izango da.

### Iturri ofizialen ikerketa

Carlota Ortuzar, Urruñan (Lapurdi) hilik agertu zen emakumea, indarkeria sexistaren biktima izan zela baieztatu zuten herenegun iturri ofizialek. Dirudienez, senarrak iturri ofizialek, bere buruazbestea egin aitzin.



Igandean, hilaren 7an, Leitzan egingo den Taloaren Eguna aurkeztu dute antolatzaile, laguntzaile eta partaideek. A.I.

## Taloaren inguruan mugituko da etzi, herriko plazara gerturatzen den oro

**Leitza** » Taloaren Eguna aurkeztu dute antolatzaileek, laguntzaileek eta partaideek.

### ASIER IMAZ

Plazaola Partzuergo Turistikoa, Leitzako Udalaren babesarekin, Taloaren Eguna antolatu du Leitzako plazan, hilaren 7an. Etzi burutuko den jaiaren nondik norakoa atzo argitu zituzten antolatzaile, laguntzaileek eta partaideek.

### Merkatua, tailerra, herri kirolak eta dantzariak

Taloaren Eguna 10:00etan zabalduko ditu ateak. Herriko plazan, ordu horretan, merkatua irekiko dute. Bertan, Villabona eta Saralegi talo-egileek tradizioa eta berrikuntza uztartuko dituzte. Plazaola

Partzuergoko artisauak euren produktuak jendearen begietara zabalduko dituzte: sagardoa, ezti, txistorra, gazta, zur lanak... eroslearen eskura egongo dira aurtengo Taloaren Egunean.

Arto zuriketaren erakusketarekin batera, herriko jatetxe eta tabernekin taloarekin egindako platera bereziak egongo dira ikusgai merkatuan.

Haurrentzat eta familientzat eskuak zikintzeko aukera 11:00etatik aurrera egongo da. Taloa egiteko tailerretan, 4-14 urte bitarteko gaztetxoek, lehiaketa egingo dute eta amaieran sariak banatuko dira. Ekitaldiekin amaitzeko 12:30ean herri kirol eta dantza erakustaldiak egingo dira herriko plazan.

### Parte hartzeko deia

Plazaola Partzuergoko presidentek, Jose Mari Aierdik, Leitzaldean irailean egingo dituzten ekime-

nak aipatu zituen, errekurtsio naturalak, ohiturak eta artisauen lanak berreskuratu eta promozionatzeko asmoz. Hauen artean Leitzan egongo diren Taloaren Eguna eta Zaldi Eguna aipatu zituen.

Leitzako alkateak, Xabier Zabalko, bere aldetik Plazaolak ekimen hauen bidez egiten duen «lan bikaina» eskertu nahi izan zuen. Parte-hartzaileei ere eskerrak eman zizkien eta herritar nahiz inguruko guztia etziko jaira gonbidatu zituen.

### » EGITARAUA

#### Irailak 7, etzi

■ **10:00etan.** Merkatuaren irekiera.

■ **11:00etatik 12:30era.** Haurrentzako eta familientzako ekintzak.

■ **12:30ean.** Herri kirolak eta Leitzako Aurrera KEko dantzariak.



Nafarroako Gobernuak sendotuko duen Leitzako estazioko eraikina. ASIER IMAZ

## Estazioko eraikina sendotzeko ia 300.000 euro

**Leitza** » Nafarroako Gobernuak estazioko eraikinetako bat sendotzeko lehen urratsa eman du.

### A. IMAZ

Leitzako estazio zaharrean hiru eraikin aurkitzen dira 1958. urtetik erabilpenik gabe. Estazioko etxeak gaur egun zabartuta eta arrailduta daude.

2007. urteko azaroan Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari eraikinen inguruko proiektua aurkeztu zion, zesioa helburu zuela. Herenegun, Gobernuak proiektu-

tuaren lehen fasea martxan jartzeko asmoa zuela aipatu zuen. Eraikinetako bat sendotzeko 299.922 eurotako aurrekontua onartuz.

### «Lehen pausoa: positiboa»

Xabier Zabalko, Leitzako alkateak, begi onez ikusi du Nafarroako Gobernuak emaniko urratsa, oraingoz proiektuaren lehen pausoa soilik dela gogoratuz: «Leitzan inbertitzea positiboa da. Gure proiektuaren arabera, goiko solairuan aterpetxe moduko bat joango litzateke eta beheran turismo bulego eta taberna moduko bat. Ekonomikoki beste adar bat bultzatzeko beti da garrantzitsua, turismoa kasu honetan».

## berria beka 2008

### Norentzat:

- Unibertitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deiak [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragarri





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

- **Alkiza.** Mozorroren Eguna. 21:00etan barrikotea; 23:00etan bertsolariak; ondoren, Bidebatez taldea.
- **Bedaio.** 20:00etan txupinazoa; ondoren sagardo dastaketa; gauean Elustondo anai-arrebak.
- **Elduain.** 17:00etan suziria; ondoren, puzgarriak eta tailerrak; 18:30ean patinai erakustaldia; 21:30ean herri afaria Urdelar biltokian; 00:00etan Hesian eta Jo ta hanka taldeen kontzertua.
- **Tolosa.** Izaskun auzoko jaiak: 18:00etan txupinazoa eta txokolata; 19:00etan buruhandiak; 20:00etan triki-poteoa; 21:00etan danborradako afaria, 23:00etan danborrada Bonberenea txarangaekin eta 00:00etan kontzertuak: Humus eta erromeria Lake-tekin.
- **Zizurkil.** 17:00etan 1, 2, 3 *liaxito* pailazoak, ondoren buruhandiak; 19:00etan Kantu Kale; 20:00etan txupinazoa eta jaietako abestiaren aurkezpena; ondoren, Kantu Kale-ren jarrapena; 21:00ean herri afaria plazan, 00:00etan kalejira Txortains-ekin; 03:00etan gau jolasak eta karaokea.

### Musika

- **Tolosa.** Plaza Berrian, 22:30ean Manent pop melodiko taldearen kontzertua, Gau Giro egitarauan.

### Zinema

- **Tolosa.** *Sexo en Nueva York* filma, Leidor aretoan, 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Urtero bezala abiarazi dugu VIII. Hitza Argazki Lehiaketa; porretako argazkiak bidaltzeko aukera duzu irailaren 18ra arte; irabazleentzat sari politak ditugu, eta baita parte-hartzaileentzat ere.

# Pirinioak eta Berlin



**PIRINIOAK** ● Villabonako Koldo Searak argazki honekin hartu du parte: «Midi d'Ossau mendia ikusten da bertan. Aragoiko Piriniotan ateratako argazkia. Mendian gora abiatu eta gehiegi nekatu gabe honelako paradisuak topatu ditzakegu bertan».



**BERLIN** ● Argazki hau bidali digu Idoia Lahidalga bilabonatarak: «Aurten Baltikoko herrialdeak bisitatu ditugu, eta bukatzeko Berlinera salto egin genuen. Bertan ateratakoa da argazkia, eguzki goxoko arratsalde batean, bidaiaiko azken arratsaldean».

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...


Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia



2. saria

Beti Alai jatetxea

3. saria



Ibarrako Azoka dendak eskainitako saski berezia.

Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako Beti Alai jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

## ARGAZKIAK NORA BIDALI

- **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
  - **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!